

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DULANTZIKO UDALA

Hasierako onespena ematea honako tasa hauek arautzen dituzten zerga ordenantzak aldatzeari: zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak, jabari publikoko ondasunen erabilera pribatuaren edo aprobetxamendu bereziaren tasak eta hiri hondakin solidoak biltzeko zerbitzuaren tasak

Udalbatzak, 2021eko azaroaren 3an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea zerga ordenantza hauek aldatzeari:

– Zerga ordenantza, zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen, kultura zerbitzuei eta jardueri dagokienez.

– Jabari publikoko ondasunen erabilera pribatuaren edo aprobetxamendu bereziaren tasak arautzen dituen zerga ordenantza, zehazki, I. epigrafea. Udal erabilera publikoko lursailetan postuak, barrakak, salmenta etxolak, ikuskizunak, jolasak edo atrakzioak nahiz kaleko industriak eta salmenta ibiltariak instalatzea.

– Hiri hondakin solidoak biltzeko zerbitzuaren tasak arautzen dituen zerga ordenantza.

Eta hori guztia argitara ematen da, interesdunek aukera izan dezaten espedientea aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko, hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eta jakinarazten da ezen, erabaki horren aurkako erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsizat joko dela jendaurrean egoteko epea igarotakoan.

Dulantzi, 2021eko azaroaren 4a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA